

Pizpiluen

arbola

Ermutar guztientzatz sakratua zen «Pizpiloen arbola» betirako akabatu dute aurtengo Irailaren 2an. Maria Txindurrik esana du egun hartan Gernikako arbola hil balitz bezala ez zuela horrenbesteko tristurarik hartuko. Arbol honen joatearekin Ermuko historiaren zati batek ere alde egin du.



Gaitzak eta ardurezak eroan digu gure historiaren beste zati bat

Teknikoen arabera bazekiten asnalditxoan, bostpasei urte, ondu batek erasotzen ziola zuhaitzari. Harrigarria ematen badigu ere, orain sei hilabetera arte ez dute ezertxo ere egin zuhaitzaren bizia salbatzeko. Zuhaitz hau zaharra bazen ere, bere ondoan egindako lanek zerikusi handia eukiko dute zuhaitzaren heriotzarekin, dudarik ez. Herri honetako agintari askok atzerritar jokatzaren dute betidanik, hori egiteko gogoaz gaine-

ra, herri honen sentimenduen jakinezari, kultueraz nabaria gehitu beharko zitzaion, zergatiak aurreikusteko orduan. Ez zuten berdin jokatu gara haietako udal zinegotziek. 1936. go gerra baino lehen Bizkaiko Diputazioa errepide zabalatzeko asmoz zegoela, egindako proiektuan arbola botatzeko proposamena zegoen. Orduko udal zinegotzi guztiek beren botuez atzera bota zuten delako proiektu hori, Diputazioak bidea zabalatzeko beste bat egin behar

izan zuelarik. Baina dudarik ez, orduko zinegotziek, gaurkoen aldean bazekiten gehiago pizpiloen arbolaz. Pizpiloen arbola espezie berezi-berezia dela esatea ez da inongo gehiegikeriarik. Txerto baten ondorioa da, *Magnolia denudata* eta *Magnolia leifleraren* arteko emaitza, hain zuzen. Mentu hau Parisen landatu zuten lehen aldiz 1820. ean. *Magnolia* guztiei bezalaxe, loreak ostiak atera baino lehen ateratzen zaizkio, Abuztuan bigarren loraldia daukalarik. Seguraski zuhaitza J. Maria de Orbe —Valdespinako III. Markesak— ekarri zuen Paristik hona. Honen aita zena Bergarako besarkadak inposatzen zuen Konstituzioa ez onartzerakoan, Bordelera atzerriratu zen bere familia guztiarekin. Hala ere, bere semea izan zena, J. Nepomuzeno, Ermura etorri zen exiliotik 1847. ean, berarekin Pizpiloen arbola ekarrita. Data hau teknikoek kalkulatu zioten 150 urteekin bat dator.

Gaitz-gaitza izango da zuhaitz honen kimuak hartzea, gaitzak jota dagoz-eta. Beraren haziak ere ez dute asko lagunduko, hibrido guztiak ez bait dira emankorrak izaten.

Igual, nork daki, udalak beste antzekoren bat landatuko du, baina dudarik ez, ez da gauza bera izango.